

Gandasegi Herri Ikastetxea.
2016/17 ikasturtea
Kantagintza

Gandasegiko ume abesbatzak 2017 Euskal Kantu Txapelketan
aurkeztutako abestia.

Ni naiz

Oraindik jaio gabe nintzela
amatxoren sabelean,
ospitaleko bisita hartan
medikuak esatean:
mutil bat izango duzu
abendu erdialdean.
Eskatu gabe ezarri zidaten
nire rola gizartean.

Han hasi ziren dena prestatzen,
jarri zidaten izena,
mutilarentzat gelatxoa ta
arroparik ederrena
esku pilotan zein futbolean
nik norako ahalmena?
ilusioa handia zuten
eta asmorik onena.

Eskolan hasi bi urterekin,
gustuko nuen benetan,
printzesa jantzi eta erantzi
ibili nintzen olgetan,
etxeratzean sarri amaren
gona eta lepoetan
aurkitzen nuen nik gozamina
eta ez beste gauzetan.

Inguruko zurrumurruek
mindu naute luzaroan,
zer-nolakoa izan ta bizi,
beti inoren ahoan.
ni zer naize ta izan nahi dudana,
utzi bakean behingoan,
neskatoa naiz ta izango naiz,
behar zaituztet ondoan.

Mikel Leibar
